

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**122/2007 Foru Agindua, maiatzaren 8koa, onartzen duena Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren martxoaren 21eko 79/2016 Foru Aginduak ezarritako baldintzak betetzea; foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Erriberabeitiko planeamenduko arau subsidiarioen 12. aldaketa puntualaren espedientea**

#### AURREKARIAK

Lehena. Martxoaren 21eko 79/2016 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen, zenbait baldintzarekin, Erriberabeitiko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 12. aldaketaren espedientea.

Bigarrena. 79/2016 Foru Aginduak, iritzirik baldintza jakin batzuk ez zirela funtsezkoak, ezarri zuen ezen, behin zuzendurik, Foru Aldundiari aurkeztu behar zitzaiola espedientea, berriro ere jendaurrean jarri beharrik gabe, behin betiko onartzearen, bete beharrekotzat jotzearen eta egin beharreko izapideak egin eta argitaratzearen.

Hirugarrena. 2017ko apirilaren 12an, espedientearen testu bateratua sartu zen aldundi honen erregistroan.

#### OINARRIAK

Aurkeztutako agiriak aztertu dira, eta egiaztatu da bete direla foru agindu horretan ezarritako baldintzak.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetakotzat ematea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren martxoaren 21eko 79/2016 Aginduak ezarritako baldintzak, alegia, Erriberabeitiko Udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 12. aldaketa puntualaren espedientea behin betiko onartzeko Foru Arauak ezarritakoak.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan; horretarako, bi hileko epea izango da ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera.

Gasteiz, 2017ko maiatzaren 8a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**

ERRIBERABEITIKO UDALERRIKO PLANEAMENDUKO ARAU  
SUBSIDIARIOETAKO 66. ETA 73. ARTIKULUEN IDAZKETA BERRIA**66. artikulua. Dotazioa eta ekipamendua**

1. Dotazio eta ekipamendu erabileran sartzen dira, besteak beste, ondoren aipatzen diren erabilerak; hala ere, planeamenduan erabilera horietako bat finkatzeak ez dakar lurzattia publikoa edo pribatua izatea. Edonola ere, erabilera planoetan baliatzen den gakoa adierazten da kasu bakoitzean:

E/1 Hezkuntza: Irakaskuntzarekin zerikusia duten jarduerak hartuko dituen dotazioa.

E/2 Kultura: Kultura hedatzeko jarduerak hartuko dituen dotazioa:

liburutegia, erakusketa, hitzaldi aretoa, eta abar.

E/3 gizarte eta jolas erabilera: aisiladiko, bilkura eta jolas jarduerak hartuko dituen dotazioa.

E/4 Osasuna.

E/5 Laguntza zerbitzuak.

E/6 Kirola: Kirol jarduerak hartuko dituen dotazioa.

E/7 Erljioa: Erljio kulturako bilkurak eta haiekin lotutako jarduerak hartuko dituen dotazioa.

E/8 Administrazio eta erakundeak: Tokiko komunitatearen gobernua eta Administrazioak komunitateari eskaintzen dizkion zerbitzuak hartuko dituen dotazioa.

E.10 Hiri zerbitzuak: Biztanleak zerbitzu publikoez hornitzeko beharrianei erantzuteko jarduerak hartuko ditu (udalaren ibilgailuen tegiak, biltegiak eta abar).

E/11 Bestelako ekipamenduak: Gizarte bizitzaren ondoriozko beharrianei erantzuteko jarduerak hartuko ditu, edo, eraikin edo instalazio batean gauzatzen den ekipamendu erabilerarekin zerikusia izateagatik, haren funtzionamendu egokia optimizatzearen osatzen dutelarik, edo biak, eta Manzanos, Ribaguda, Quintanilla, Igaegi eta Mellede herrietan baizik ez aplikatzekoak.

E/12 Generikoak: Lehen aipatutako erabilerak hartuko dituen dotazioa (E/1etik E/11ra artekoak), udalerriko herrigunerik txikienetako bakoitzaren beharriari espezifikoei erantzuteko, eta, beraz, Manzanos, Ribaguda, Quintanilla, Igaegi, eta Mellede herrietan baizik ez aplikatzekoak.

2. Herrigune ororen zerbitzu ekipamenduak, eta, beraz, sistema orokor gisa hartzekoak, honako hauek:

GE/1 Udalerriko udalaren egoitza

GE/6 Kirola

GE/8.0 Kontzejuko Administrazio Batzarraren eta Kuadrillaren egoitza.

GE/8.1 Udalerriko udalaren egoitza

GE/10 Hilerriak

GE/12 Generikoa. Lehen aipatutako erabilerak hartuko dituen dotazioa (E/1etik E/11ra artekoak), udalerriko herrigunerik txikienetako bakoitzaren beharriari espezifikoei erantzuteko, eta, beraz, Manzanos, Ribaguda, Quintanilla, Igaegi, eta Mellede herrietan baizik ez aplikatzekoak.

**73. artikulua. Hirugarren sektoreko erabilerak**

1. Merkataritza erabilera, batez ere, hau da, produktuak eta zerbitzuak jendeari saltzeko diren eraikuntza edo eraikuntza zatiak.

2. Erabilerak determinatzeko beharrezkoa denean, honako hauek bereizten dira hirugarren sektoreko erabileren artean:

a) Lehen sektoreko baliabideak eta industria baliabideak ekoiztearekin lotutako biltegiak eta ustiategiak, eta horien artean nabarmentzekoak direlarik arau hauetan duten eraginagatik nekazaritzako biltegiak.

b) Biltegiak eta handizkako merkataritza

c) Jendearentzat irekitzen diren bulegoak (bankuak, aseguruak, higiezinak, bidaia agentziak, aholkularitzak eta antzekoak

d) lanbide liberaletako bulegoak: mediku kontsultak, abokatuak, arkitektoak, eta abar.

e) Farmazioa eta osasun arretako zerbitzuak

f) Ile apaindegiak, apaindegiak, etab.

g) Txikizkako merkataritza, 300 m<sup>2</sup> arteko tegietan.

h) Txikizkako merkataritza, 300 m<sup>2</sup> baino tegi handiagoetan.

i) Ostatatzeak: hotelak

j) Ostalaritza: ostatu eta jatetxeak.

k) Jolas zerbitzuak.

l) Erabilera publikoko garajeak (ibilgailu zaindegiak)

m) Apopilo etxeak